

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Pablo Aranzadi Urretabizkaia

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Ategorrietako Iturraga etxean jaio zen, baina Loiolako Udaraberri etxera joan ziren bizitzera hiru urte zituenean. Seme bakarra zen. Ama Tolosakoa zuen, urte askoan Uruguain eta Mexikon bizi izandakoa; aita, berriz, Mutiloakoa zen. Gurasoek oilasko-postua zuten San Martin azokan. Gerra garaian etxea okupatu zieten, eta Goierri egon ziren. Joxek mojetan ikasi zuen lehenengo eta gero fraide korazonistetan. Hantxe egin zuen batxilergoa, eta Kimika ikasi zuen ondoren, Salamancan. Bueltan, Lizarriturri xaboi-lantegiko laborategian hasi zen lanean, Antigua auzoan. Urte dezente egin zituen han, baina beste hainbat tokitan ere ibili zen: Donostiako hiltegian, Suchard lantegian 'sugus'-ak egiten eta Martuteneko eskularru lantegian. Elena Aiestaranekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuten.

Zintak

DON-113

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-29
- **Iraupena:** 136 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

DON-114

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-30
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Umetako oroitzapenak

- **Erref:** DON-113/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Hiru urte zituen arte Ategorrietako Iturraga etxean bizi izan ziren, ez du ia hango oroitzapenik. Gogoan du behin aitak zangalatraban zeramala, biak erori eta konortea galdu zuela aitak. Tolosako lehengusu-lehengusina batzuk noizean behin etortzen ziren bertara eta bere lehengusu batek jostailuak leihotik botatzen zituela ere gogoan du.</p>

2. Loiola nola aldatu den, botatako baserriak

- **Erref:** DON-113/003
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:04:46. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Hiru urte zutela Loiolako Udaraberrira joan ziren bizitzera, kanposantu ondora. Hasieran kanposantua ez zuten hain hurbil, baina 1946 inguruan handitu zuten eta elkarriketa garaian hurbilago zuten. Han jauregi bat baino ez zegoen. Inguruan zeuden baserriak aipatzen ditu. Beraiena ez zen baserria, mendiko etxea zen. Hamalau bat baserri desjabetu eta etxe berriak egin zituzten. Zeharo aldatu zen dena.

3. Ama urte askoan Uruguay eta Mexikon egondakoa

- **Erref:** DON-113/005
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

<p>Ama tolosarra zuen. Bederatzi urterekin eskola utzi eta 13 urterekin Uruguayra joan zen neskame, izeko batek eskatuta. 16 urte pasa ondoren ahizpa batengana joan zen Mexikora. Izeko hark pentsio bat zuen eta bost urtez egon zen bertan, izeko hil zen arte. Amaren ahizpa hura bat-batean hil zen neumoniak jota.</p>

4. Ama oilasko-saltzailea Mexikon e ta Donostian

- **Erref:** DON-113/007

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:14:03. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Bere ama Mexikon egon zen bost urtez ahizpa baten pentsioan lanean. Baina diru pixka bat gehiago ateratzeko bertako indioei oilasko txortak erosten zizkien amak gero berak saltzeko. Gero, bere aitarekin ezkondu eta Donostiako San Martingo azokan oilasko-postua jarri zuen.

5. Gipuzkoako azoketara oilasko bila

- **Erref:** DON-113/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Aita Gipuzkoako eta Durangoko azoketara joaten zen oilaskoak eroatera, gero beraien San Martingo postuan saltzeko. Oilaskoak bizirik erosten zituen eta Amarako hiltegian hil. Amarako hiltegian untxiak, arkumeak, oiloak... hiltzen zituzten.

6. Oilasko-dendan zer saltzen zen

- **Erref:** DON-113/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harategietan haragia saltzen zuten, ez oilaskorik. Oilasko-dendan oiloak, oilaskoak, untxiak, arrautzak, gazta, arkumea, ehizako txoriak... saltzen zituzten.

7. Aita Afrikako soldadutzatik ezin libratu

- **Erref:** DON-113/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:25:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Bere aitaren garaian soldadutzara joan aurretik zozketa bat egiten omen zen:

Afrikara edo Espainiara joan. Bere aita Mutrikun morroi zegoela, entzuna zuen Markina-Xemeingo Larruskain auzoko San Inaziora joanez gero, Afrikara joatetik libratu zintezkeela. Orduan, Mutrikuko Olatz auzotik oinez joan zen bertara eta libratu egin zen. Madrilera destinatu ondoren, Annualgo desastrea pasatu zen eta ondorioz denak mobilizatu zituzten eta Afrikara eramaten zuten aita.

8. Egiako mojen ikastetxea

- **Erref:** DON-113/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:27:16. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Egiako mojen ikasketxera joan zen. Ametzagaina da gaur egun, lehen "Camino del cementerio" deitzen zitzaion. Sei urterekin hasi zen han, baina zortzi urterekin, aurreneko jaunartzea egin eta gero handik irten eta Sagrado Corazonera joan zen batxilerra egitera. Mojen ikastetxean neskak eta mutilak aparte zeuden eta dena zen erdaraz eta euskara ez galtzeko, amak etxean euskaraz egingo zutela esan zion. Horri esker gorde du.

9. Unibertsitatean ikasteko Espainiara joan behar

- **Erref:** DON-113/016
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Batxillergoa ikasi ostean, Kimika ikasketak egin zituen Salamancan. Garai hartan, unibertsitatean ikasten zuen jendea Espainiara joaten zen: Madrilera, Zaragozara, Valladolidera, Salamancara... Zazpi urteko batxillergoa egin ondoren, Valladoliden egin behar zuten "exámen de estado". Donostian merkataritza eta arte eta lanbideak ikas zitekeen. Ategorrietan "La normal" esaten zioten lekuan, irakasle ikasketak ere ikas zitezkeen. Kanpoan ikasteak gastu handia zekarren eta ez zen dena erraza izan. Bere amak txarkuteria ikastea nahi izan zuen negozioarekin jarrai zezan. Joxe Pablo nahiz eta bere erabakia ez damutu, uste du amak arrazoia zuela.

10. "Milicias universitarias"

- **Erref:** DON-113/017
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Kimika ikasketak bukatu eta gero soldadutzara joan behar izan zuen. Ikasten zeuden bitartean udaran "milicias universitarias"era joan behar izaten zuten, baina berak nahiago izan zuen ikasketak egin ondoren joatea soldadutzara. Soldadutza bukatu eta segituan hasi zen lanean Antigua auzoko Lizarriturriko xaboi-lantegiko laborategian.

11. Xaboa koipearekin egiten zuten

- **Erref:** DON-113/020
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:52:37. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Lizarriturri xaboi-lantegian koipearekin egiten zuten xaboa, galdara handietan. Espainia guztitik ekartzen zuten koipea, upeletan.</p>

Transkripzioa

Ba, iten zan, jaboia iten zan kalderatan, kaldera haundi batzutan, eta harea botatzen zan, ba, badakizu, grasa, koipia. Koipia. España guztiko [partetatikan] ekartzen genun koipia barriketan. A! Gero kontatuko dizut gauz bat polita, oso polita da. Barriketan etortzen zan sebua. E? Koipia; baiño arkume sebua ta behian grasak eta danak. Ta mataderi... hiltegi guztitikan ta España guztitikan biltzen zan. Eta etortzen zian: batek bialtzen zitun zazpi, beste batzuk berrogei, beste... barrikak. Barrikak kamioietikan bota ta batzuk lehertu egiten zian eta, ordun, fabrikan genun tonelero bat. Tonelero bat.

12. Lantegian nagusia ez zegoenean alferkerian

- **Erref:** DON-113/021
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:53:37. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lizarriturri xaboi-lantegian lanean hasi zenean, 473 langile ziren. Arduradun bakoitzak bere laguntzailea zuen. Nagusia falta zenean, askotan atsedean hartzen egoten ziren (egunkaria irakurtzen, lo kulumalkan...). Don Manuel Rezola zen nagusia eta oso zorrotza zen. Langile gehienak baserritarrak ziren eta txapel eta guzti joaten ziren lanera, baina don Manuel azaltzerakoan txapela kendu behar izaten zuten berau agurtzeko. Behin, don Manuel ohikoa zuen ordua baino lehenago lantegira azaldu eta upelgilea eta haren laguntzailea alferkerian harrapatu zitueneko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Ni Lizarriturri hasi nitzanean 473 persona giñan. Laurehun, e! Baiño, ordun, enkargatu bakoitzak bere ajudantia izaten zun. Enkargatuak bere ajudantia. Eta honek'e, tonelero honek'e, ba, halaxe zan, bea're zan tonelero, baiño bere ajudantia zakan. Nausiyak, nausiyak beti kostunbria izaten zun fabrikatikan buelta ematia egunero-egunero-egunero eta beti ordubete baten pasatzen zan. Eta bazekiten ze ordutan pasako zan, eta bakoitzak, ba, bere gauzak, batzuk periodikua letu o beste batzuk lo-kulumalka egin o, tranpak. Nola ajudantia bazuten, ba, badakizu, hoi beti izandu dia ta izango dia. Eta halaxe. Eta halako baten, nausiya, don Manuel Rezola zan. Don Manuel Rezola. Baiño zan... Alemanin formatu zan eta zan hola. Baiño zuzena! Baiño hola, e! Danak ibiltzen zitun...! Eta ordun, langilliak-eta, askok, danak baserritarrak izaten zian, gehientsuenak, Igeldo aldetikan-eta etortzen zian, ta danak txapelakin. Txapela ibiltzen zuten gaiñen. Eta txapelakin lanian-ta egoten zian. Baiño don Manuel azaltzen... don Manuel azaldu ta txapela kentzia biyak gauz bat zan. Txapela kendu behar zan, ta "Egun on, don Manuel", ta iya-iya kuartelian bezela jarri bihar izaten ziñan zutik, "Egun on, don Manuel". Geo, ba, beak esaten zuna aitu behar. Halako baten, egun baten, ez dakit zeatik, don Manuel, ba, zortzitan pasatzeko kostunbria baldin bazun, goizeko zazpitan pasa zan. Etzetikan, ez dakit, ba, gaizki lo ingo zun o ez dakit ze arraiio, ta etorri zan ta zazpitan pasa zan. Eta pasatzen da ta aurreneko tallerra zan tonelariya. Alleatzen da ta han billatzen ditu tonelerua —momentu hontan bere izena ez naiz gogoratzen, baiño beti... katxis la... bueno—, tonelerua eta bere ajudantia. Ajudantia zaku bat bota ta etzan eta lo. Ajudantia lasai. Eta bestia periodikua letzen. Eta han atian "dda!", don Manuel. "¡Buenos días!"; zutik derrepente! Periodikua utzi ta zutik! "Buenos días, don Manuel" harek. Eta don Manuelek esan zion: "¿Qué haces?" ta "Nada, don Manuel". Klaro, [...]. "¿Y tú?" esan zion bestiai, etzanda zeon ta, "Yo le estoy ayudando". Ez al da polita?

13. Lantegian xaboia nola egin

- **Erref:** DON-113/022
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 01:01:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Lizarriturri xaboi-lantegian upelgilearen lana koipez beteta zetozen upelak

konpontzea zen, maiz puskatzen baitziren. Koipea erabiltzen zen xaboia egiteko eta hori sutan jarrita egiten zen xaboia; prozesua azaltzen du.

14. Kokoa xaboia egiteko

- **Erref:** DON-113/024
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:02:08. **Bukatu:** 01:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Lizarriturri xaboi-lantegian aritu zen lanean Joxe Pablo eta orduko kontuak kontatu zizkigun. Xaboiak koipea izateaz gain koko-olioa ere bazuen, oso ona baitzen. Itsasoz ekartzen zuten kokoa eta gero gurdiz garraiatu. Alde Zaharreko mutikoek bazekiten noiz heltzen ziren ontziak eta kokoa jateko zain egoten ziren. Kokoak osorik eramaten zituzten lantegira eta bertan ateratzen zien olioak. Opilak ere egiten zituzten eta baserritarrek aprobetxatzen zituzten ganaduari emateko.

15. Kokoa jan ondoren lehertu beharrean

- **Erref:** DON-113/025
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:03:51. **Bukatu:** 01:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Gose urteak oso gogorak ziren eta Lizarriturriko langile batek xaboia egiteko erabiltzen zen koko zati bat jan zuen behin. Jan eta gero putzen hasi zen eta lehertu behar zuela pentsatu zuten. Orduan medikua zuten lantegian.

16. Kokoa behientzat

- **Erref:** DON-113/026
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:06:07. **Bukatu:** 01:06:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Xaboia egiteko kokoa erabiltzen zuten Lizarriturriko xaboi-lantegian. Sobratzen ziren opilak baserritarrek hartzen zuten ganaduari emateko. Antza behiek esne gehiago ematen zuten.

17. Xaboi mota ezberdinak

- **Erref:** DON-113/027
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:06:43. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Lizarriturriko xaboi-lantegian "Flores de Guris" tokadoreko xaboia egiten zuten. Bizarrarentzako beste xaboi berezi bat ere bazuten. Eskuetarako eta aurpegirako "Guris" krema ere bazuten. Xaboiak antzekoak ziren, baina usaina eta prezioa ezberdinak ziren.

18. Egunean 100.000 kilo xaboi

- **Erref:** DON-113/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Lizarriturriko xaboi-lantegian gehien "Lagarto" xaboia saltzen zen. Egunean 100.000 kilo xaboi egiten zuten. etxe guztietan erabiltzen zen xaboi hori. "Lagarto" eta "Chimbo" erabiltzen zen gehien, gerora etorri zen "Bilore". "Chimbo" xaboia Bilbon egiten zen.

19. Mutikotako jolasak

- **Erref:** DON-113/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:14:55. **Bukatu:** 01:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bere auzoko baserrietako umeekin jolasten zuen umetan. Bere eskolako umeak Donostian bizi baitziren eta bera auzoan. Zertan jostatzen ziren azaltzen digu pasarte honetan. Dena egiten zuten euskaraz inguru hartan.

20. Ostegun arratsaldetan sagardo pitarra edatera

- **Erref:** DON-113/032
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:17:27. **Bukatu:** 01:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Ostegun arratsaldetan eskolan jai izaten zuten. Beraien auzoan eta baita etxean ere sagardo denboran sagardoa egiten zuten. Hamabi-hamahiru urte zituztela, udaberri aldean, eskolako lagunak bere auzora igotzen ziren eta bere amak sagardo pitarra (sagardoa eta ura) zerbitzatzen zien. Garai hartan, pilotan eta futbolearen aritzen ziren gehientsuenak.

21. Arto bizarrak erre

- **Erref:** DON-113/033
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:19:43. **Bukatu:** 01:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Igande arratsalde baten arto bizarrak erre zituen, lehenengo eta azken aldiz. Amak segituan harrapatu zuen eta ez zuen gehiago erre. Ez zuten sagarrik osten, etxe guztietan zeuden-eta.

22. Kilkerrak txapel azpian gordeta

- **Erref:** DON-113/034
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:21:12. **Bukatu:** 01:22:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin aitarekin Aralarrera joan zenean, manzanilla bilduta kilkerak beraien zulotik atera eta txapel azpian gorde zituen aita kilkerrok. Etxera bueltan trenean kilkerak kantuan hasi ziren eta aitaren kaskoan zeuden kilkerak ezkutatuta.

23. Txapelak baserritarrek, "Peio"ek

- **Erref:** DON-113/035
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:22:13. **Bukatu:** 01:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Joxek ez zuen txapelik erabiltzeko ohiturarik. 12-13 urterekin hasten ziren txapela erabiltzen baserritarrek; kaletarrek ez zuten jantzen. Baserritarrei "Peio" deitzen zien.

24. Baserritarra zelako burla dotrinan

- **Erref:** DON-113/036
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:23:06. **Bukatu:** 01:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Gerra denboran jende asko Donostiatik joan zen eta sakabanatu egin ziren. Berak garai hartan egin zuen lehen jaunartzea; ondorioz, adin desberdinetako jendearekin batu zen dotrinan. Bera oso lotsatia zen eta gainera baserri gunekoa. Kaletarrek esaten zien hitzik politena "Peio" zela dio, hori erabiltzen zuten baserritarrei deitzeko.

25. Elizan ere euskara debekatuta

- **Erref:** DON-113/037
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:25:34. **Bukatu:** 01:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Frantziskotarrekin ikasi zuen dotrina. Euskaraz jakin arren dena zen erdaraz, derrigortuta zeuden. Behin mezaren bat-edo euskaraz ematearren eliza itxi zien hainbat hilabetez.

26. Gerran Altzagara ihesi

- **Erref:** DON-113/038
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:26:20. **Bukatu:** 01:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Loiolako baserri guztiak hartu zituzten eta handik bidali zituzten. Auzokoek zaldi-gurdietan eraman zituzten etxeko gauza gutxi batzuek eta beraiek ere horrelako gurdi batean joan ziren. Astigarragako dolare batean egin zuten lo auzoko guztiek, hurrengo egunean Altzagara joan ziren etxekoak. Joxe eta aita denbora askoan egon ziren bertan, ama lehenago bueltatu baitzen.

27. Gerra bukatutakoan txerriaren burua eskegita aurkitu zuten

- **Erref:** DON-113/039
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:28:48. **Bukatu:** 01:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra garaian Altzagara joan ziren etxeokak. Donostiara bueltatu zitekeela jakin zutenean ama Itsasondora joan zen eta soldadu batzuekin bueltatu zen handik etxera. Etxera sartu aurretik, auzoko baten etxera joan zen laguntza eske; izan ere, beldurra ematen zion etxera bakarrik sartzea. Sukaldera sartu eta mahaia erdian jarrita eta txerriaren burua ustelduta, harraz betea, aurkitu zuen eskegita.

28. Urrezko erlojua eta "Niño Jesusa" baratzean txikituta

- **Erref:** DON-113/040
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:30:47. **Bukatu:** 01:33:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra garaian Altzagara joan ziren etxeokak. Etxera bueltatu zirenean, etxean falta zitzaizkien hainbat gauza baratzean aurkitu zituzten txiki-txiki eginda; tartean, amak Mexikotik ekarritako urrezko erlojua eta amak debozioa zioen Pragako "Niño Jesusa".

29. Maiatzeko loreak, igandetako meza eta konfesioa

- **Erref:** DON-113/045
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:35:08. **Bukatu:** 01:36:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Eskolan maiatzeko loreak ospatzen zuten. Loreak eraman behar izaten zituzten. Igandero-igandero eskolako kaperara joaten ziren goizeko zortzietan eta gero, goizeko hamarretan, Artzain Onaren katedraleko meza nagusira joaten ziren. Larunbatero karmeldarregana joan behar izaten zuten konfesatzera.

30. Aste Santutako prozesioan parte hartu beharra

- **Erref:** DON-113/049
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:39:04. **Bukatu:** 01:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Beraien auzoan ez zegoen festarik. Aste Santutan, ostegunez Artzain Onaren katedraletik irteten zen prozesioa eta ostiralean Alde Zaharreko San Bizentetik. Beraien aita gustura joaten zen elizara. Prozesioetan gizonezkoak izkinetan jartzen ziren kandelak eskutan zituztela. Beraien aita beti joaten zen eta Joxek ez zuen batere ongi pasatzen, gorroto zuen Aste Santua. Baina Ostegun Santuko prozesio hartan beti estreinatzen zuen traje berria. Alde Zaharrekoan jendea hunkitu egiten zen. Artzain Onekoan erromatarrez janzten ziren.

31. Urgulleko Jesusen Bihotz Sakratuari buruzko sermoia

- **Erref:** DON-113/054
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:46:54. **Bukatu:** 01:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Salamanca ikasten zegoela, hotz egiten zuela-eta, elizan sartu zen behin. Pulpitutik sermoia botatzen zegoen apaizak Donostia aipatu zuen: Urgulleko Jesusen Bihotz Sakratuaren irudia handik kendu beharrekoa zela, hondartzan ikusiko zituen gauzak zirela-eta.

32. Lehengo bainujatziak

- **Erref:** DON-113/056
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 01:49:14. **Bukatu:** 01:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Lehengo bainujantziak nolakoak ziren azaltzen du, gizonezkoenak zein emakumezkoenak.

33. Txori harrapaketan

- **Erref:** DON-113/057
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 01:49:45. **Bukatu:** 01:54:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Eskola garaian ikasturtea bukatutakoan, emaitza onak zirela-eta, aitak bonba pastela erosten zion. Baina hamabi urterekin, txoritan ibiltzeko haize

konprimatudun eskopeta bat oparitu zion. Txinboak harrapatzen zituen. Bizpahiru urtez aritu zen, gerora ez zen gehiago aritu. Bere auzoko batek txoriak harrapatzeko tranpak izaten zituen. Zein txori harrapatzen zituzten aipatzen ditu. Askotan saltzen zituzten txori horiek. Amak txinboak ere saltzen zituen

34. Tortoletarako leku aproposa

- **Erref:** DON-113/058
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:54:18. **Bukatu:** 01:55:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Etxe inguruan tortolak harrapatzeko tokia zegoen, horiek harrapatzeko zein baldintza behar ziren azaltzen du. Usotan beste toki batera joan behar izaten zen. Etxe inguruan galeperrak ere bazeuden.

35. Txerri hiltzea

- **Erref:** DON-113/060
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:57:26. **Bukatu:** 01:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Urtero, azaro aldera, etxean hazitako txerria hiltzen zuten. Gatzetan jarri eta urte osorako jakia izaten zuten. Aldameneko etxekoei ere ematen zien. Odolkiak jende gehiagoren laguntzaz egiten zituzten.

36. Domu Santu Egunean gaztainak

- **Erref:** DON-113/061
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:58:42. **Bukatu:** 01:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

Aitak Domu Santu Egunean danbolinean gaztainak erretzeko ohitura zuen. Arratsean jaten zituen gaztainok sagardoz lagunduta.

37. Herri kirol zalea

- **Erref:** DON-113/064
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 02:02:32. **Bukatu:** 02:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Herri kirol zalea da Joxe. Bere aita Mutrikun morroi egon zenean, Pedro Maria Txurruka "Aritza" harri-jasotzailearen etxean egon zen. Orduan zaletu zen bere aita eta haren bitartez bita Joxe bera ere. Sekula ez du zentimorik jokatu, baina apustuak ikustea gustuko du. Gaur egungo harriak desberdinak dira, ez dute zerikusirik.</p>

38. Herri kiroletan aritutako kirolariak

- **Erref:** DON-113/065
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 02:04:28. **Bukatu:** 02:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Herri kirol zalea da Joxe. Garai batean harri jasotzen zein beste diziplinetan aritutako batzuk aipatzen ditu.

39. Harri jasotzeko harriak burdina zuenekoa

- **Erref:** DON-113/066
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 02:05:38. **Bukatu:** 02:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Martin Mendizabal harria jasotzen ibiltzen zen garaian, apustu baten ostean, harri pusketa bat bidali zuten Lizarriturriko lantegira harriaren material analizatzeko; Joxek analizatu zuen eta burdin pusketak zituela ohartu zen.

40. Korrikalarien apustuak

- **Erref:** DON-113/068
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 02:08:20. **Bukatu:** 02:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

'Txikito de Arruiz' eta Aldaz izan ziren bere garaiko korrikalari onenak. Tolosara eta Azpeitira joaten ziren lasterketak ikustera. Donostiako Txofreko zezen-plazan Garziarenak eta 'Luzia'k egindako apustu bat aipatzen du. Garai hartan oxigenoa hartzen hasi ziren.

41. Aizkoran nafarrak nagusi

- **Erref:** DON-113/069
- **Iraupena:** 0:06:22. **Hasi:** 02:09:38. **Bukatu:** 02:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora apustu gehientsuenak Tolosan eta Azpeitian ospatzen ziren. Aizkolari onenak nafarrak izan dira, nahiz eta Gipuzkoan ere onak egon.

42. Garai bateko bertsolariak

- **Erref:** DON-113/070
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 02:09:23. **Bukatu:** 02:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsozalea da Joxe. Bere garaiko bertsolariak dakartza gogora. Xalbador Hegoaldekoa balitz, uste du gehientsuenetan berak irabaziko lukeela eta ez zuela merezitakoa jaso. Uztapide oso ona zen, baina Basarrik askotan irabazten zuen. Basarrik 'La voz de España'n idazten zuen eta horrek eragina omen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com